

EHF KOPAKO FINALERDIAK. Kervadec, Stefansson, Kudinov eta Krezschmar ezagunek jokatzen dute, besteak beste

Magdeburg, talde indartsu eta zaila izango du aurkari Bidasoak

Alemanian jokatuko dute martxoaren 25ean, eta astebete geroago itzulikoa, Irunen

SC MAGDEBURG TALDEKO JOKALARIAK

JOKALARIA	ADINA	ALTUERA	PISUA	POSTUA
1. Fritz Henning	26	1.88	89	Atezaina
16. Christian Gaudin (Fra)	34	1.96	95	Atezaina
4. Maik Machulla	24	1.89	95	Erdikoa
8. Olafur Steffansson (Isl)	28	1.96	94	Albokoa
10. Vassili Kudinov (Erru)	31	1.95	100	Albokoa
13. Sven Liesegang	31	1.92	99	Erdikoa
14. Steffen Stiebler	29	1.97	99	Albokoa
20. Oleg Kulestxov (Erru)	27	1.84	95	Erdikoa
22. Michael Jahns	25	2.01	101	Albokoa
73. Stefan Krezschmar	28	1.90	95	Hegala
3. Bennet Wiegert	26	1.91	85	Hegala
11. Erik Göthel	28	1.73	76	Hegala
19. Joel Abati (Fra)	30	1.91	86	Hegala
9. Gueric Kervadec (Fra)	29	1.98	109	Pibota
23. Uwe Mäuer	30	1.94	107	Pibota



CRISTOF STACHE / AP
Vassili Kudinov, Errusiako selekzioarekin jokatutako partidu batean.

ESANAK

JULIAN RUIZ

(Bidasoako entrenatzailea)

«Aukeran, nahiago dut Magdeburg Metkovic baino; joko pausatua egiten dute lehenek, egokiagoa guretzat»

«Magdeburg da faborito, EHF Kopa irabazi zutelako 1999an, eta talde bikaina dutelako»

«Joanekoan emaitza ona lortzen badugu bakarrik izango da garrantzitsua itzulikoa etxean jokatzea»

JAVIER SESMA

(Bidasoako presidentea)

«Magdeburg talde ikusgarria da. Itzulikoa etxean jokatuko dugu, behintzat»

Andoni Urbistondo | **DONOSTIA**

Europako edozein txapelketa-finalerdietan aurkari samurra egokitzea zaila da, dagoeneko ez dagoelako aurkari samurrik, baina zailen artetik zailena ez egokitzea eska daiteke. Bidasoaren erreguak, alferrikakoak izan dira, inondik ere. Ez du zortetik izan, EHF Kopako zozketan Alemaniako Magdeburg indartsu eta zailaren aurka neurtuko baita. Kroaziako Metkovic eta Islandiako Hafnafjörður taldeek jokatuko dute beste finalerdia.

Alemanian Liga indartsuko talde sendoenetakoa da SC Magdeburg. Jokalari zerrenda begiratu orduko izarrak nonahi topa daitezke, postuz postu, hutsunerik gabe. Bidasoak maila bikaina eman beharko du kanporaketa gaitzeko bidean, EHF Kopako finala jokatzeko.

Gaudin (Frantziako selekzioarekin munduko txapeliduna) eta Fritz dira atezainak. Lehen lerroan jaurtitzaila bikaina da Islandiako Steffansson albokoa. Kudinov (albokoa) eta Kulestxov (erdikoa) errusiarrak ere ez dira makalak. Bigarren lerroan nazioartean ezagunak diren jokalariek aritzen dira: Gueric Kervadec (pibota) eta Abati (hegala) frantziarrak, eta Alemaniako Stefan Krezschmar (hegala) eta Stiebler pibota. Jokoa zuzen-

tzen, Irun aldean sobera ezagutzen duten gizasemea, Alfred Gisslasson islandiarra.

Julian Ruiz: «Aukeran, nahiago Magdeburg Metkovic baino»

Julian Ruiz Bidasoako entrenatzaileak zuhertasun handiarekin erantzun zituen EGUNKARIAren galderak, zozketa onegia ez zela izan onartuta: «Tira, finalerdietan gaude. Islandiako taldea nahi genuen. Aukeran, dena den, nahiago dut Magdeburg Metkovic kroaziarra baino», esan zuen. «Alemaniako taldeen jokoa egiten du Magdeburge, nahiko pausatua. Metkovic, aldiz, joko oldarkorra egiten du, Balkanetako taldeen antzera, eta haiek garaitzea zailagoa dela uste dut» hitzekin argudiatu zuen Ruizek lehentasun hori.

Entrenatzaileak Magdeburg faborito dela dio, «EHF Kopa irabazi zutelako 1999an, eta jokalarik bikainak dituztelako». Alemanian entrenatzen jardun zen orain urte batzuek Ruiz, baina orduko eta oraingo Magdeburg ezberdinak dira oso. Martxoaren 25ean jokatuko dute joaneko partidua Alemanian, eta astebete geroago itzulikoa Irungo Artalekun: «Joanekoan emaitza ona lortzen badugu bakarrik izango da garrantzitsua itzulikoa etxean jokatzea», Ruiz esanetan.

Obelixen herrixkan

GISLASSON, MAGDEBURGEO ENTRENATZAILEA. Islandiarrak bi denboraldi egin zituen Bidasoan, eta bikote paregabea osatu zuen Wentarekin

Gorka Zabaleta | **DONOSTIA**

Aurkari oldarkorra gelditzeko indarra, defentsa sendoenak txikitzeko ausardia, eta inguruko bihotzak alaitzeko sentsibiltatea. Fernando Boileak ezizen ezin egokiagoa jarri zion Alfred Gisslasson taldekideari: Bidasoako Obelix. Denboraldi pare bat baino ez zituen egin Irunen, baina jarraitzaileen jokalarik gustukoa izan da beti. Nork ez du Obelix maite?

1988an izan zuten irundarrek islandiarraren berri. Bidasoak Europako Kopan lehiatzeko aukera izan zuen lehen aldiz, eta finalerdiak arte ez zuten partidu bakar bat ere galdu. Alemaniako Tussem Essen egokitu zitzaizten. Apirilaren 4an Grugahallen jokatuko zuten joanekoa, eta Bidasoak astindu itzela jaso zuen: 22-7. Sei mila alemaniar sutsuren aurrean, Hecker atezainak dena gelditu zuen, Fraatzek berrero lanak egin zituen, eta Villarrealak Gisslasson islan-



EGUNKARIA
Alfred Gisslasson, Bidasoan.

JUANTXO VILLARREAL

Bidasoako entrenatzaile ohia

«Lehena zen lanerako, eta lehena txantxarako. Bi dohain horiek uztartzea ia ezinezkoa da, baina bera salbuespena da»

diarra bere taldean nahi zuela erabaki zuen.

1989an iritsi zen Gisslasson Irunera, Bogdan Wenta poloniarrekin batera. Juantxo Villarrealak gogoratzen du inoiz topatu duen jokalaririk osoena dela: «Lehena zen lanerako, lehena txantxarako. Bi dohain horiek uztartzea ia ezinezkoa da, baina bera salbuespena da». Denboraldi horren amaieran Kopako finala jokatuko zuten Bidasoak, baina galdu egin zuen. 1990-1991 denboraldian ordea, Gisslassonek Kopa irabazi zuen Bidasoarekin. Urte horretan bertan, Errekopako finalera iritsi zen Bidasoak, alemaniako TSV Milbertshofen izan zuten aurkari. Artalekun 20-15 irabazi ostean, Augsburgen 24-17 galdu zuten. Gisslassonek 18 gol egin zituen final hartan, baina pena izugarria hartu zuen. Denboraldia amaituta, Islandiara itzuli zen, eta Akureyri taldean aritu zen, jokalarik eta entrenatzaile lanetan, Alemaniatik deitu zioten arte.